



Iñaki Garces euskal preso politikoa aske geratu da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 12/03/2024

Bizkaitarra 26 urteko kartzel-zigorra bete du.

Garces 1998an atxilotu zuten, eta 26 urteko espetxe zigorra ezarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak ETA-ko kidea izatea eta Renault enpresaren kontrako ekintza bat leporatuta, 1985ean eman zena. Hainbat urtez dispertsioa pairatu zuen, 2021eko udaberrira arte, non Espainiako Espetxe Erakundeek hura Euskal Herriratuko zutela iragarri zuten, eta Zueratik (220 kilometrora, Espainia) Basaurira (Bizkaia) lekualdatu zuten. Urte bat beranduago, 2022ko otsailean onartu zioten hirugarren gradua —zigorraren hiru laurdenak 2017an bete zituen—, eta iazko martxotik baldintzapean zegoen aske. Atzo, 26 urteko zigorra osorik bete ostean, aske geratu da.

<https://eh.lahaine.org/inaki-garces-euskal-presopolitiko>